

A. Abbadieren euskal gramatikari buruzko ideiak eta ordu arteko euskal gramatikagintza

(A. Abbadie's ideas about Basque grammar and previous Basque grammars)

Oyharçabal, Beñat*
Haizpura. Inthatarateak Bidea
F-64480 Uztartitza

* Euskaltzain osoa.
Eusko Ikaskuntza

1836an A. Abbadiek eta A. Chahok argitara eman zuten "Etudes grammaticales sur la langue euskarienne" izeneko liburua, non Abbadiek "Prolegomènes" delakoak idatzi baitzituen. Aitzin solas gisako idazlan horretan oinarriturik, artikulugileak Abbadieren euskarari buruzko ikusmoldeak eta linguistikako arrazoibideak ikertzen ditu, eta 19.mendearen lehen parteko hizkuntza ideien arabera kokatzen. Bereziki aipatuak diren gaiak hauek dira: euskal aditzaren teoria; perpaus atalen ohiko zatiketaren kritika; hizkuntza erlatibismoa; konparazio tipologikoaren eta etimologikoaren arteko bereizketa; eta hizkuntzen bilakatzeaz eskaintzen den ikuspegi berria, garapen historikoari nolabait lotua, eta, Astarloaren ikusmolde aitzinazaleen kontra joanik, Schleicherren aztermoduak aurretik nolabait agerrarazten dituen.

Giltz-Hitzak: Hizkuntza ideien historia. Hizkuntza konparazioa. Euskal gramatika.

A. d'Abbadie publicó en 1836 con A. Chaho una obra de gramática vasca titulada "Etudes grammaticales sur la langue euskarienne" ("Estudios gramáticos sobre el idioma euskara"), de la cual redactó los prolegómenos. A partir de esta obra, un análisis de las concepciones de d'Abbadie en este ámbito es propuesta y situada en el marco de las ideas lingüísticas, y de los modos de argumentación de la primera parte del siglo XIX: teoría del verbo en Euskera, cuestionamiento de la pertinencia de la división tradicional de las partes del discurso, relativismo lingüístico, distinción de la comparación tipológica y etimológica, aparición de una concepción evolucionista del desarrollo de los idiomas con base histórica, prefigurando, a pesar de las importantes diferencias, los análisis de Schleicher, e invirtiendo la valorización de las teorías primitivistas como las de Astarloa.

Palabras Clave: Historia de las ideas lingüísticas. Comparación lingüística. Gramática vasca.

A. d'Abbadie publia en 1836 avec A.Chaho un ouvrage de grammaire basque intitulé "Etudes grammaticales sur la langue euskarienne", dont il rédigea les prolegomènes. A partir de cet ouvrage, une analyse des conceptions de d'Abbadie dans ce domaine est proposée et située dans le cadre des idées linguistiques, et des modes d'argumentation de la première partie du 19ème siècle: théorie du verbe basque, mise en cause de la pertinence de la division traditionnelle des parties du discours, relativisme linguistique, distinction de la comparaison typologique et étymologique, apparition d'une conception évolutionniste du développement des langues à base historique, préfigurant, malgré des différences importantes, les analyses de Schleicher, et inversant la valorisation des théories primitivistes comme celles d'Astarloa.

Mots Clés: Histoire des idées linguistiques. Comparatisme linguistique. Grammaire basque.

Antoine Abbadiek interes berezia erakutsi bazuen beti hizkuntzen aldera, eta bereziki euskararen aldera, hari zor bazezkie Etiopiako mintzaira andana bati buruzko deskripzio lanak, hura izendatu bazuten 1864an Pariseko *Société de linguistique* delako elkarteko lehen buru, horrela erdiesten zuela orduko Frantziako hizkuntzalarien ezagutza, ez daiteke erran halere euskal gramatikari buruzko lanetan biziki ibili zela, ororen buru haren obran sail horretan eginikako lan kasik bakarra gazte denboran idatzi zuen eta hemen azterkatuko dugun euskal gramatikaren sarrera gisako hura baita.

Abbadieren bizia markatu duen gertaera nagusia dudarik batere gabe Arnaud bere anaiarekin, Etiopiako lurraldeetan barna egin ibilaldi luzeak markatzen du: gizon gazte bat da, 1836an, Brasilerara eta gero, ondoko urtean, Etiopiarara abiatzen; biziaren erditsuraino heldua den fama handiko jakintsua da handik hamar urteren buruan itzultzen. Bada, gaztea zelarik, 23 eta 26 urteren artean¹, ikertu zuen Abbadiek euskal gramatika, orduan argitaratu baitzituen Chahoren gramatikaren aitzinean agertzen diren "*Prologomènes*": lan aski laburra, egia errateko, 50 bat orrialdetakoa, baina euskalaritzaren historiaren ikuspegitik franko interesgarria, garai hartako ikerlanen eta ezagutzen irudi garbia ematen baitigu, eta euskararen estudioei garai berri bat irekitzen baitzien. Ezen, mugako lana da Abbadierena: alde batetik hesten du Larramendik euskal gramatikagintzan ireki ildoak, eta bestetik 19. mendeko euskalaritzaren munduan sarrarazten ditu euskal estudioak, funtsezko berrikuntza batzuk ekarriz ideien aldetik, hala nola erlatibismo linguistikoari ateak zabaldurik, azpimarratzen duenean eukara ez daitekeela hizkuntza klasikoan gramatiken arabera azter, edo-ta konparatibismo berriaren lehen urratsak seinaturik, ahaidetasun tipologikoak eta lokarri genetikoak, hein batean bederen, elkarretarik bereizten dituenen eta hizkuntzen tipologiaz irakurketa ebolutionista bat egiten duenean.

Aurkezpen honetan, lehenbizirik, Abbadieren *Prologomènes* delakoak orokorki aurkeztuko ditugu (§1). Ondotik, ikusiko dugu zer gisatan ekarria izan bide zen Abbadie gaztea euskararen ikertzaia, eta bidenabar gogoraraziko ditugu Arnaud-Michel, haren aitak sail horretan eginikako lanak. Gero bere ikerlanean agertzen dituen euskararen inguruko ideia nagusi batzuk azterkatuko ditugu: lehenik perpaus zatiei eginen dien uko borobila aipatuz (§2), ondotik Abbadieren arabera euskararen ezaugarri nagusiak diren puntuak ikusiz (§3), eta azkenik hizkuntza konparatibismoaz eta hizkuntza bilakaeraz zituen ikusmoldeak aurkeztuz (§4). Erran gabe doa, azterketa honetan Abbadieren prolegomenez bereziki ariko bagara, haiekin batean agertu zen Chahoren gramatika, eta aitzinagoko gramatika lanak ere, aipagai izanen ditugula behin baino gehiagotan.

1. PROLEGOMENEN AURKEZPENEA

Prolegomenak 1836an argitara eman zituen Abbadiek, A. Chahoren gramatika lan batekin batean. Liburuaren titulua haxe da: *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne par A. TH. d'Abbadie, et J. Augustin Chaho*. Izenburu hau ikusiz argi ez bada ere, ez da dudarik bi lan desberdin eta bi esku desberdin ditugula liburuaren barneko bi parteetan: prolegomenak ditugu alde batetik, Antoine Abbadie-k eginak eta siñatuak, eta *Grammaire euskarienne* izeneko lan bat bestetik, Chahoren izen-deiturei dagozkien J.A.C. letez izenpetua dena.

Edukinak aski desberdinak dira. Chaho egiazko gramatika egitera saiatzaren delarik, Abbadiek, berriz, euskararen eta euskalaritzaren aurkezpen orokorra egiten du. Bi lanak irakurririk, ageri da Chahok gramatika lehenik idatzi zuela, eta ondotik Abbadiek bere aitzin

1. Berak ematen zigun informazio hori: *Depuis trois ans que notre attention s'est portée plus spécialement sur la langue de nos pères ...* dio (Abbadie 1836:7)

solasa², batzuetan Chahoren jokabidea onetsiz, besteetan ez. Errateko moduak bereziki arras desberdinak dira bi idazlanetan: Chahok bere usaia mintzamolde handios, doi bat nahasia erabiltzen du; ez Abbadiek, ordea, hau, alderantziz, hitzak izartuz, eta hipotesiak –zenbait aski ausartak ere– haztatuz, mintzo baita gehienetan.

Prolegomenetako lehen partean euskararen ezaugarri tipologikoak ikuspegi kontrastibo batean aurkeztu ondoan, Abbadiek, bigarren partean, erraten du nor izan dituen aitzindariak, eta, batere dudarik gabe, gaztea izanagatik orduko ikerlan argitaratuen berri xeheki ematen baitu, nolatsukoa zen orduko egoera euskalaritzako gaietan, batez ere Frantzian, eta ororkia-go Europan. Honela zatika daiteke Abbadieren aitzin solasa:

Aurkezpen tipologikoa.

- euskararen ezaugarriak (1-15. o.)
- euskara eta beste hizkuntzak (15-26. o.)

Euskal ikerketei buruzko sinopsia.

- euskalaritzako lan argitaratuen katalogoa (26-38. o.)
- euskal testu argitaratuen katalogoa (38-47. o.)
- Esku-izkribuen katalogoa (47-50. o.).

Ikus dezakegunaz lan laburra izanagatik euskalaritzako alor garrantzitsuenak hunkitzen ditu hartan Abbadiek, eta kontuan harturik, batetik, haren adina –26 urte ditu doi-doi prolegomenak bururatzen dituenen–, eta bestetik gai horietaz oso gauza guti publikatua izan zela garai hartan, eta anitzetan aurkitzeko zailak, ez da dudarik norbaiten laguntza izan zuela. Parisen izanik gisa horretako lan bati ekiteko behar zen dokumentazioaren biltzeko³.

2. Chahok Abbadieri idatzi gutun batean lanaren prozedura piska bat zehazten da. Argi da bereziki bi autoreek ez zituztela beti ideia berak eta zeinek bere ikusmoldea zainduz agertu nahi zutela plazara: *Vous pouvez donner déjà à préparer votre Introduction. Je vous recommande de lui donner une certaine étendue, pour qu'elle fisse contrepoids avec l'aridité de ma grammaire. Nos deux noms figureront sur le premier titre, vous signerez votre travail A. Th. Abbadie, de Navarre, et mon nom figurera sur le faux titre que prendra mon premier chapitre. De cette manière, chacun aura la responsabilité de ses idées, et l'on verra dans l'ensemble du livre, le peuple patriote qui après nous a réu-nis.* P. Urkizuk (1992:46-47) argitaratu zuen gutun hau; (letra beltzura guk ezarria).

3. Hauek dira Abbadiek bere gramatikan aipatzen dituen euskalaritzari buruzko liburu argitaratuak:

- Oihenarten *Notitia*, 1638ko argitalpena.
- Voltoireren *Thesora*, 1842ko argitalpena.
- Larramendiren *El imposible vencido*, 1729.
- Harrieten gramatika, 1741.
- Larramendiren hiztegia, 1745.
- Cardaberen *Eusqueraren berri onac*, 1761; (aipuz)
- Moguelen *Nomenclatura de la voces guipuzcoanas...*, urt. gabe; (aipuz).
- Adelung-en *Mithridates*. 2. lib. 1809.
- Humboldtek aurrekoari egin zuzenketak eta gehiketak, 1817.
- Iharce de Bidassouet. *Histoire des Cantabres*. 1825.
- Lécluseren gramatika, 1826.
- Darrigolen disertazioa, 1827.
- Astigarragaren hiztegia; bigarren argitalpena, 1827.

Abbadiek 1836an ezagutzen zituen esku-izkribuak:

- S. Pouvreauren hiztegia.
- Darrigolen Volney sarirako idazlana.
- Astarlyoren *Plan de langues* (aipuz bakarrik Humboldtten erranetarik).
- Lécluseren hiztegia.
- Humboldtek Larramendiren hiztegiaren euskararen arabera egin antolamendua (aipuz).

Laguntzaile baten izena ematen digu Abbadiek berak (1836:28)⁴: *Nous devons à la complaisance de M. E. Coquebert de Montbret d'avoir pu consulter la plupart des volumes rares qui manquent à notre collection.* Coquebert-en laguntza, ordean, aipu horretan ageri den bezala, osagarria baizik ez zen izan, baitzuen jadanik Abbadiek euskalaritzako obrez osatu bilduma gisako bat, hain segur ere aitak ondoretasunez utzia. Ezen Antoine Abbadien aita ere, Arnauld-Michel izena zuena, semea baino hamar bat urte lehenago ibilia izan zen euskalaritzako lanetan. Eta Antoine Abbadie euskaltzalea omentzen ari garelarik egun hauetan, kome-ni da menturaz hizño bat erran dezagun haren aitaz ere, hark ere erakutsi baitzuen euskararen alderako atxikimendu berezia.

Bi modutan agertzen da Arnaud-Michel Abbadie euskal lanetan: mezenas gisa eta informatzaile gisa.

Léclusek berak erraten digu bere *Manuel de la langue basque* (1826) delakoan, A.M. Abbadiek ordaindu zuela liburu haren argitalpena⁵. Bestalde, badakigu, Antoine-Abbadiek prolegomenetan salaturik, filologo hark eginikako hiztegi handi baten suskripzio-deiak⁶ ere Arnaud-Michelek argitara eman zituela. Darrigolek ere izan zuen haren esku-zabaltasunaren berri. 1827an agerrarazi baitzuen *Dissertation sur la langue basque*, lan hura gustatu zitzaion A.M. Abbadiari eta egilea, bere lana osatu ondoan, Volney sarirako lehiaketan (1829koan) parte hartzera bultzatu zuen; ik. Petit-ek, Dubarat eta Haristoyren ondotik, argitara eman A.M. Abbadien gutunetako pasarteak (Petit 1899:548).

Informatzaile gisa ere laguntza eman zion Arnaud-Michel Abbadiek Lécluseri. Alabaina, *Manuel de la langue basque* delako hartan gramatikaren eta hitz bildumen ondotik agertzen diren euskarazko hiru testu, *Arrastoitarra* goitzenarekin izenpetuak⁷, A.M. Abbadiek idatzi zituen: *Le corbeau* et *le renard* Lafontaineren alegiaren itzulpena, olerki bat Astarloaren ome-nez ondua, eta *Huntz erhoa* deitu ixtorio labur bat ere, Iharce de Bidassouet-ez trufatzeko egina.

4. Eugène Coquebert de Montbret horretaz ikus Oyharçabal (1992).

5. Hona zer dioen bere gramatikaren bigarren partean Arnaud-Michel Abbadiari egin eskaintza gutun batean: *Quant au noble désintéressement que vous avez manifesté, en faisant les frais de mon manuel de la langue basque, ce ne sera que dans votre propre cœur, et dans la reconnaissance de tous vos compatriotes, que vous en pourrez trouver la récompense.* (Lécluse 1826:116-117. o.)

6. Lakarrak (1987-1988) Lécluseren lanak argitara ematean horrelako dei baten argitalpena eskaini digu (1987:109-114). *Eskuararen gorputza* deitua izan zen hiztegi horrek 40 000 mila hitz omen zituen, eta Larramendiren hiztegitik abiatutik egin zen, sarrerak euskal hitzen arabera ordenaturik. Juan Mateo Zavalak emanikako bizkaierazko hitzekin aberastu zuen Léclusek Larramendiren hiztegia, lapurterazko hitzak ere gaineratzen zituela. A. Abbadiek gramatikari aipatzen du Lécluseren hiztegia: *En 1827, feu A.M. Abbadie, mon père, publia en espagnol et en français le prospectus d'un dictionnaire basque, espagnol et français; Toulouse, in 8°, 28 pages. Ce nouveau travail de M. Lécluse devait reproduire en 2 vol. in-8° de 1000 pages, tout le dictionnaire de Larramendi. L'auteur avait rajouté à ce travail, entièrement achevé à cette époque, un millier de termes propres au biscayen ou extraits d'Axular; mais cet ouvrage du laborieux auteur du Manuel basque n'a pas encore été imprimé.* (Abbadie 1836: 49. o.) Zorigaitzez, delako hiztegi hori ez zen publikatu azkenean, eta geroztik ez da aurkitua izan ere. Ez da segur halere galdua dela. Alabaina, Antoine Abbadiek Pariseko Biblioteca Nazionale utzi liburuaren zerrendan agertzen da *Eskuararen gorputza* izeneko obra, beharbada hiztegi haren kopia baita lan hura, non ez den haren argitaratzeko Abbadien aitak egin zuen delako suskripzio-deia.

7. Antoine Abbadiek zioen aitaren hiru lan horiek eta Chahoren *Azti beghia* zirela orduko zubererazko literatura testu bakarrak: *Celui [euskalkia] de la Soule, n'a mis au jour que trois pièces fugitives, insérées par Arnaud-Michel Abbadie, à la suite de l'ouvrage de M. Lécluse, et l'Azti-Beghia publié, il y a deux ans, par Augustin Chaho.* (Abbadie 1836:7)

Lécluseren gramatikako hiztegi laburren moldatzeko ere laguntza eman zuen, bilduma hartako hitzen erdiak-edo harenganik bildu baitzituen Léclusek⁸.

2. ERLATIBISMO GRAMATIKALA ETA PERPAUS ZATIEN AUZIA

Haren aitak gramatika kontuak zuzenki guti edo batere hunki ez bazituen, A. Abbadi gaztea, berriz, bete-betean sartuko da haietan, orduko zenbait ideia aitzinaturik.

Bat, bereziki, aurkitzen da, aski berria dena euskalaritzan Darrigol bide hori piska bat zabaltzen hasi bazen ere: erlatibismo linguistikoarena. Zentzugabekeria eta anakronismo irri egingarria litzateke, naski, erlatibismo hori 20. mendeko estrukturalismoaren arabera ikustea. 19. mendearen lehen partean izan zezakeen testuinguruan ulertu behar da hemen, bereziki aurreko mendearen bigarren partetik aitzina Port Royalgo tradizioaren ildotik Frantzian indarrean jarri zen *gramatika orokorra* eta *gramatika unibertsala* deitu izan ziren programen argian⁹. Larri-larria erranik, ikusmolde erlatibistaren arabera, gramatikak egituratu behar dira, hizkuntzek edo hizkuntza tipoek dituzten ezaugarri bereziez kontu edukiz, eta hizkuntza mota horiei ez dagokien molderik erabili gabe. Hitz batean, zalantzan jartzen da gramatika eredu orokorrik izan daitekeela, eta mintzaira batek ordu arte ikertuak izan diren hizkuntzek ez bezalako ezaugarriak dituenean, eredu berri egokia bilatzera enseiatu behar da haren gramatikaren egiteko.

Naski, aitzineko autoreak ohartu ziren jadanik euskarak bazituela ondoko hizkuntzek ez bezalako ezaugarri batzuk. Larramendiren *Arte* delakoaren aitzin solasean berean agertzen dira gisa horretako oharrak¹⁰:

Si llaman impossible una gran dificultad, lo confieso desde luego; y que sobre lo difícil, que es, disponer Arte en qualquiera Lengua, en la nuestra, por lo singular de su artificio y por no estar sendereado el camino, son tan de vulto las dificultades, y embrazos, que no me admiro, que, quanto en algun tiempo tuvieron pensamiento de com-

8. Léclusek berak aitortzen du: *Pour compléter l'utilité de cette grammaire, j'avais préparé deux vocabulaires, l'un basque-français, l'autre français-basque; mais je m'étois borné aux expressions les plus usitées dans le dialecte labourtain. Une méditation assidue a pu réveiller en vous les mots que votre enfance avoit vu graver en votre mémoire; et, par cet heureux surcroît, mon recueil s'est à peu près doublé.* (Lécluse 1826:117)

9. Aurreko mendeko Port Royalgo tradizioaren ondotik, Du Marsais eta Beauzée bereziki saiatu ziren *grammaire générale* baten ideien lantzen. Halere, Dominicyk (1992) erakusi bezala, gramatika orokorrak ezin aldatuzko printzipio orokorrak finkatzen bazituen, ez zuen gramatika partikularren joko osoki bideratzen edo hertsiki mugatzen. Gramatika orokorra ez zen gramatika partikularren eredu, ez eta haren ezaugarrien bilduma, zerbait abstraktuago baizik. Gramatika unibertsalaren deitura, berriz, Court de Gébelinek erabili zuen frantses tradizioan ikuspegi konparatibista batean. Beauzée kritikatu zuen kontzeptu hori gramatika unibertsala gramatika partikularren printzipioen bilketa gisa harturik: *l'idée d'une grammaire universelle est une idée chimérique; nul homme ne peut savoir les principes particuliers de tous les idiomes; et quand on les saurait, comment les réunirait-on en un seul corps?* (Encyclopédie méthodique II, 146. o.). Gogoan izan, Du Marsais, Beauzée eta Court de Gébelin aurkitzen direla Darrigolen liburuan agertzen diren erreferentzia nagusien artean.

10. Euskararen berezitasuna haren izaera pospositiboan bereziki ikusi zuen Larramendik: *la construccion, o Syntaxis del Bascuence, comparada con la de otras Lenguas, es pospositiva* (Larramendi 1729: Prologo). Cardaberazek (1761) ideia bera urrunago eraman zuen, erranez hitzak gaztelaniaz ez bezala eta kontrako ordenan emanez ematen zitzaiola euskal estiloari bere grazia: *Beste izquerac bezala, gureac ere itzaldi egoqui, chit biziac, berezco, ta berariaczo ederrac ditu. Baña Erdarac era batera, ta Eusquerac bestera. Onec era pospositivo, ta arc prepositivoan. Esan nai du: Gaztelaniak beti aurretic dacarrena, Eusquerac asqueneronz beti botatcen duela: eta itzac beren lecuan, Gaztelaniaren ifintce orretan Eusqueraren era eder, aire, edo chiste gucia dago* (Cardaberaz 1761:58). Hitz ordena kontuak ez zituen batere aipatu Abbadiak.

poner Arte della, aterrados dessistiessen de la empresa. No he tenido guía, que vaya delante, y me dirija, me ha sido preciso romper el camino, en que apenas pueden servir las ideas de otras Artes, mas que para el cotejo; porque el Bascuenze es una Lengua, que congenia poco con las otras. (Larramendi 1729: Prologo); (belztura guk ezarria da)

Haatik, gramatika lanetan beretan ondorio guti zuen horrek, eta oro-har eredu latin-erro-manikoen bidetik ibili ziren euskal gramatikariak, Larramendiren bidetik. Astarloa salbuespena da, dudarik batere gabe, honek askatasun gehiago erakutsi zuen bere lanetan, baina hizkuntza perfektasunaren kontzeptuak urruntzen zuen erlatibismoaren ideietarik. Gisa batez, euskal gramatika bera lehen hizkuntzaren lekukotasun gisa kontsideraturik, oinarri unibertsal moduko zerbait kausitu nahi zuen hartan Astarloak. Abbadiek, ordean, garbiki hausten du tradizio horrekin eta, hizkuntzetan tipo desberdinak badirela onetsiz, saiaturiko da euskararen ezaugarri gramatikalak euskaratik beretik abiatuturik aurkezten:

C'est à regret que nous avons écarté le système grammatical que nous devons aux Anciens, et qui a été suivi et perfectionné par tant d'auteurs. Il est ingénieux et à l'avantage d'être généralement connu et assez bien compris: mais s'il s'adapte imparfaitement à la généralité des langues analytiques, il est tout-à-fait antipathique à celles qui procèdent par synthèse, et surtout à la langue basque. (Abbadie 1836:4); (belztura guk ezarria da)

Ez dugu gordeko hemen pentsamolde horrek behar baino urrunago ere eraman zuela, horretan Darrigol bide urratzaile eta Chaho ere bide lagun izan zituela. Esprika dezagun hobeki kontu hau.

Europako tradizio gramatikalean, mendeetan zehar, erdi-arotik gaur arte, sendoenik iraun duen oinarria kategoria lexikalei dagokiena dateke¹¹. Segurki, Darrigolek berak garai hartan gogoratzen duen bezala¹², gora-beherak izan dira kategoria edo hitz klase edo, lehenago erraten zenaz, perpaus zati horien finkatzerakoan, zerrendak laburrago edo luzeago egin dira, zenbait kategoriaren egokitasuna dudatan eman da, edo azpi sailetan eratuak izan dira, baina orokorki oinarriak atxikiak izan dira, bereziki gaur egun kategoria nagusiak deitzen direnen kasuan. Euskal tradizioan ere, Larramendik Nebrijaren gramatika eredua onartu zuen, eta bide beretik ibili ziren ondoko gramatikariak ere, aditzak, izenak, izenondoak, aditzondoak, etab... bereiziz, eta gramatikaren azalpena haien gainean finkaturik gehienik¹³.

11. Perpaus zatien historiaz eta iraupenaz ikus S. Auroux (1992). Europako tradizioan finkatuko den ikuspegia jadanik Dionisios Traziararen (K.a. 170-80) lanetan aurkitzen da (Robins 1957). J. Lallotek taula batean bildu ditu honek bere *Tekhne* delakoan bereizten zituen zortzi perpaus zatiak: izena (onoma), aditza (rhema), partizipioa (metokhe), artikulua (arthron), izenordea (antonymia), preposizioa (prothesis), adizlaguna (epirrhema), konjunkzioa (sundesmos); (ikus S. Auroux 1992:586).

12. Darrigolek: *L'on compte ordinairement neuf espèces de mots. Mais il est des grammairiens qui les réduisent à un moindre nombre: quelques uns en admettent quatre seulement, d'autres trois; d'autres enfin n'en veulent que deux, comme Priscien: Parte orationis, dit cet auteur, sunt secundum dialecticos duce, nomen et verbum (Lib. 2).* (Darrigol 1827:22). Darrigolek euskararen kasuan bi perpaus zati nagusi bereizten zituen: izenak eta aditzak. Harentzat euskararen primitibotasunaren seinale zen hori: *nous pouvons mettre en principe qu'une langue est plus près de l'état primitif et de la nature, à mesure que ses mots se prêtent plus commodément à la classification la plus simple que les grammairiens aient encore conçue: or les mots de notre langue se prêtent singulièrement à cette division.* (Darrigol 1827:22)

13. Larramendik zortzi perpaus zati eman zituen: *Siguiendo la comun opinion de los Gramaticos daremos à esta Syntaxis del bazcuenze sus ocho partes de la oracion, nombre, pronombre, verbo, participio, posposicion, adverbio, interjection, y conjuncion* (1729:258) Izenetan sartzen zituen, alde batetik, substantiboak eta adjektiboak, eta bestetik, artikulua.

Abbadiek, aldiz, batzertzen ditu horiek oro, eta harenganik igurikitzen ez genuen jokabide ezeztatzaile bat hautatzen du. Ez ditu bakarrik dauden kategoriak ukatzen, eta euskal gramatikatik kanporatzen, baina kasik edozein kategoriatzeren kontra agertzen da: euskal gramatikari *hitzak* baizik ez dira, atzizkiei esker edozein zereginetan ager daitezkeenak, eta beraz debaldetakoak, are desagokiak dira haien arteko bereizkuntza kategorialak¹⁴. Horrela, morfologiari lehentasuna emanik, baina honen mugak eta berezko zeregina kontuan hartu gabe (bestalde, morfologia lexikalaren eta flexiboaren arteko bereizkuntza argi izan gabe ere), Abbadiek euskararen hiztegia kategoriarik gabekoa balitz bezala aurkezten du (edo, orobat heldu baita, kategoria orotakoa).

Aditzaz beste perpaus zatiak bederazka harturik, erranen du Abbadiek zergatik desegokia den, haren ustez, euskararen gramatika azterketa haien gainean oinarritzea:

Artikulua: *Nous ne saurions reconnaître notre -a final comme une partie d'oraison (...); c'est plutôt une terminative qui (...) s'ajoute au verbe comme au nom.* (Abbadie 1836: 4)

Euskarazko artikulua perpaus zatietan ez sartzeko, Abbadiek ez du hainbeste haren izaera morfologikoa aipatzen, baina beregainki agertzen den testuinguruak, erranez izenekin ez ezik, forma adberbial batzuei ere lot dakiekeela, bai eta aditzei ere galderen egiteko:

Ainsi l'esqualdun dira seme, fils; semea, le fils; hor, là; horra, voilà; ez, non; eza, est-ce que non; bai, oui; baia oui interrogatif (...). De même nous disons niz, je suis; niza, suis-je; nizana, le qui suis, ou suivant la phraséologie française, celui qui suis. On voit que cet a final joue toujours le même rôle, celui de d'isoler et de préciser l'idée. (Abbadie 1836: 4)¹⁵

Izen eta izenondoak: *Quant à la distinction en nom substantif et nom adjectif, elle est parfaitement inutile.* (Abbadie 1836: 4)

Izenondoen eta izenen arteko bereizketa aldakorra izan da gramatika tradizioan, maiz izenen barnean egin izan baita, Larramendik bezala izen substantiboak eta izen adjektiboak bereiziz, adibidez (ik. 13. oharra). Bereizketa honen mugaz gogoeta egin zuen Humboldték ere (Gómez 1996), eta badakigu euskaraz hitz andana bat badela ambiguo dena kategoriatze horren aldetik: *hotz, bero, argi, ilun, gose, egarri, ...* Ordean, Abbadie ez doa bide horretarik, ezen harentzat bereizketaren desagokitasuna erabatekoa da. Argumentu sintaktikoak baliatuko ditu horren erakusteko. Lehenik erranen du bereizketa baliagarri dela izenen eta izenondoen arteko komunztadura duten hizkuntzetan, baina ez euskara bezalako mintzairetan (haietan sintagma osoak hartzen baitu ondarkia, eta

14. Chahok ideia bera garatu zuen. Honela zioen: *La langue euskarienne ne reconnaît qu'une seule espèce de mots (hitzak), qui est celle des noms (izenak), régis par un système universellement régulier de déclinaison.* (1836:35); [Euskarazko itzulpenak Chahorenak dira]. Ohar bedi irakurlea Chahorentzat hitz erroak izenak direla. Abbadiek ezer garbirik ez dio horretaz: alde batetik, gorago erran bezala, aditzaren kategoria ez du auzitan jartzen, erakustera eman ez horrela oinarritzko kategoria dela aditzarena harentzat, baina, bestalde, R. Gomezek seinatlatzen didan bezala, Chahok izan aditzaz proposatu azterketa onartzen du, gisa horretan aurreko ideiarekin kontradikzioan sartzen baita; ikus halaber 34. oharra. Beharbada kontradikzio hori hizkuntza garapenez zuen kontzepzioak esplikatu dezake, Abbadierentzat aditzak izenen ondotik agertzen baitira hizkuntzen historian (ik. urrunago §4).

15. Anekdotak bitxia: handik zenbait urteren buruan, Etiopian ibiliko denean, Hamtonga izeneko (gaur Xamta) mintzaira baten deskripzioaren egiten hasiko denean elementu berak aurkituko ditu Abbadiek (J. Mohl-i eginikako gutuna, 1840/10/02, ik. Abbadieren testuen bilduma (1997:353)). Antza denaz, euskara bezala ergatiboa den hizkuntza hartan ere artikulua -a atzizkia da, hari lotzen baitzaizkio ondotik kasu markak. Bestalde -a forma, euskararen bezala, galdera morfema gisa baliatua da: ye 'bai', yea? 'baia?'.

bakarrik hark). Bestalde, gaineratzen du bi kategorien artean bereizketaren egiteko balia daitekeen irizpiderik egokiena eta zorrotzena ez dela baliatzen ahal euskarari. Alabaina, irizpide hori konparaketa mailak erabiltzeko ahala izatean (izenondoak) edo ez izatean (izenak) datza; euskaraz, ordean, izenei ere lot dakieke konparaketa mailen morfologia, ez izenondoei bakarrik¹⁶.

- Izenordeak: *L'eskuara n'admet pas de pronom, à moins qu'on ne veuille consacrer toute une partie de discours à un petit nombre de noms de relation.* (Abbadie 1836:5).

Euskarak izenorde erlatiborik, eta izenorde posesiborik ez delakoan baztertzen ditu Abbadiek izenordeak. Harentzat *nere* genitiboa da, baina ez izenorde posesiboa (*les pronoms possessifs des auteurs sont pour nous des génitifs*); hain segur Abbadieren ikuspegian izenorde batek ezin izan baitzitekeen izenlagun.

- Partizipioak: *Nous rejeterons de la grammaire cette idée de participe si vague et si mal interprétée.* (Abbadie 1836:6).

Partizipioaren kontzeptuaren baztertzeko erakusten du ez daitekeela nozio hori euskarari modu garbian erabil, euskal gramatikariak izen hori elementu desberdinei eman izan baitiete. Alabaina, autore gehienek aditz izenkiari edota adizkera laguntzaile jokatuakin agertzen diren aditz nagusien formei erran badiete, Humboldték erlatibo libroetako aditzei deritze horrela, eta bide horretan sartuz gero gisa bereko beste adizkerak ere sar daitezkeela dio Abbadiek:

Humboldt (...) donne aussi avec plus de raison, selon nous, le titre de participe au verbe lorsqu'il est accompagné de la finale na, signifiant, qui, le, ou celui; mais alors il faudrait accorder le même nom aux formes nizalakoz, nizalarik, etc., ce qui donnerait une étendue démesurée à l'idée qu'on se fait généralement d'un participe. (Abbadie 1836:6).

- Aditzondoak: *La langue basque n'a pas d'adverbe.* (1836:6).

Aditzondoen definizioa da ezin aldatuzko hitzak direla. Ordean, dio Abbadiek, *-ment* atzizkia duten frantses hitzei dagozkien euskal hitzak, erran nahi baitu *-ki* (*choilki, ederkî*) atzizkia dutenak, deklina daitezke¹⁷, eta beraz ez dira ezin kanbiatuzkoak, molde horretan, aditzondotasunaren irizpidea ere, ez baita egokia euskarari. Bestalde, segitzen du, *aujourd'hui* eta *demain* frantses hitzen euskal ordainak (*egun, bihar*), *eguna* eta *biharra* izenen mugagabeko formak baizik ez dira.

- Preposizio eta konjunkzioak: *nous avons dû exclure l'une et l'autre de la grammaire basque.* (Abbadie 1836:6).

Kasu honetan definizio zehatzik ez izateagatik baztertzen du bereizketa, eta gauza bera gertatzen da interkjekzioarekin.

16. Abbadiek ematen duen adibidea, Gipuzkoan entzun omen zuen perpaus hau da: *bide hau bideago da*.

17. Oker dabil horretan Abbadie, *-ki* aditzondoak ez baitira deklinatzen ahal euskaraz. Nahiz adibiderik ez duen ematen, beharbada aditzondo horietarik eratorri izenak gogoan zituen Abbadiek (*ongi, gaizki*). Erran gabe doa, kategorien beharra ukatu ondoan, Abbadiek ez zezakeela balia isilkako eratorretaren kontzeptua kategoria aldaketen azaltzeko (*erartorketa inpropioa* delakoa, alegia). Dena den, Darrigolek jadanik aipatu zituen *-ki* aditzondoak; ez zuen zuzenean dudatan ezarri ezin deklinatuzkoak zirela, baina *-ki* atzizki erartortzaile adberbiala sozietiboko *-ki(n)* atzizkia-ekin berdinkatu zuen: *çuhurki, qui passe pour adverbe, est donc l'abréviation de çuhurciareki*. (Darrigol 1827:88).

– Interjekzioa: *nous n'insisterons pas sur l'inutilité de cette distinction.* (Abbadie 1826:7).

Abbadiek azpimarratzen du Léclusek berak ere azken perpaus zati horiek (aditzondoak, preposizioak, konjunkzioak, interjekzioak) partikulen sailean bildu zituela, baina, hain zuzen, metodoaren eta sailkapenaren ahuleziaren ondorioa ikusten du horretan:

Toutes ces prétendues parties d'oraison se traduisent en basque, ou par des cas inhérents au mot principal, ou par des mots déclinables. L'inconvénient de la subdivision généralement employée avait été vaguement senti par M. Lécluse quand il a réuni, dans sa grammaire, ces quatre dernières parties d'oraison sous le titre de particules, espèce de caput mortuum incertæ sedis, où quelques auteurs relèguent les superfétations de leurs méthodes incomplètes. (Abbadie 1836:7).

Abbadieren zerrendan, ezeztatua ez den perpaus zati bakarra aditza da¹⁸, iduri baitu gisa horretan harentzat euskal hiztegiaren oinarrian aditzak direla. Ez du holakorik garbiki erraten baina horretara darama haren aurkezpenak, eta hala ematen dute aditzera euskal hiztegiaren erroak aipatzerakoan baliatu zituen adibideek ere (ikus 3.1.eko aipua, behereago). Gauzak horrela izanez, Chahorenganik urruntzen da puntu horretan Abbadie. Izan ere, Chahok ere perpaus zatiak euskal gramatikan desegokiak direla badio ere, oinarritzko hitzak izenak direla proposatzen du (ik. halere 14. oharra).

3. EUSKARAREN EZAUGARRI TIPOLOGIKOAK ABBADIERENTZAT

Perpaus zatiak euskal gramatikatik kenduz, zeren arabera era zezakeen Abbadiek gramatika eredu? Hona haren erantzuna:

Pour satisfaire à une pensée qui nous paraît sûre et philosophique, nous avons dû choisir dans notre exposition une méthode nouvelle. Nos études seront classées selon les trois derniers caractéristiques de la langues: terminatives, déclinaison et conjugaison, c'est-à-dire les trois modifications du mot, suivant ses qualités, sa position et ses relations. (Abbadie 1836:4)

Ikusten denaz, osoki morfogiaren arabera gramatika eredu eratzten du Abbadiek. Ideia da, hitzek erator atzizkien bidez holako edo halako izaera hartzen dutela, deklinabideko atzizkien bidez dagokien funtzioa (badirudi *position* hitza horrela ulertu behar dela hemen), eta aditzen jokatzeko moldearen bidez erlazioak adierazten direla. Hain zuzen, morfologiaren hiru alderdi horietan aurkitzen dira, Abbadiaren arabera, euskararen ezaugarri nagusiak. Beste ezaugarri bat ere gaineratzen du, hitz erroen izaerari dagokiona.

Beraz lau partetan aurkeztu euskararen bereizgarriak:

- euskal hitzen erroak;
- eratorbideko atzizkiak;
- deklinabidea;
- aditz jokabidea.

18. Egia errateko, izenen kategoria ez du egiazki ukatzen Abbadiek, haren kritika, ikusi bezala, izen vs izenondo bereizketaren aurka egina baita bakarrik.

3.1. Euskal erroen soiltasuna

Abbadieren ikuspegiari, euskal lexikoaren oinarrian silaba bakarrek edo bi silabatako morfemak ditugu, gehienetan fonema guti batzuen trukaketan eraikiak:

La composition si élémentaire de ses racines [euskararenak], le plus souvent monosyllabiques, présentant rarement plus de deux syllabes, et tellement simples, qu'elles épuisent toutes les combinaisons possibles entre un petit nombre de lettres; comme jan 'manger', jin 'venir', jun 'aller', jo 'frapper', jos 'lier', etc. (Abbadie 1836: 1)¹⁹

Ideia hau aurretik ere kausitzen dugu bai Humboldt-en²⁰ lanetan (1817), bai eta bereziki Darrigolen gramatikan (1827:17), honek puntu horretan hebreoaren inguruan egin ziren molde bereko proposamen batzuek euskararentzat ere balio zutela azpimarratu baitzuen²¹.

Silaben gaia, bai eta silaben barneko osagaien gaia, Astarloak bereziki sartu zuen euskal estudioetan, horretaz zenbait ohar interesgarriren ondoren, dakizkigun gogoeta izariz zituen ideiak. Chahok bai, ordean, nahiz ez duen Astarloaren izena aipatzen. Alabaina, honen lanean Astarloaren ideien azarnak kausitzen dira, hala nola soinuaren adiera naturalen berri ematen digunean²². Adibidez, *tz* soinuaren berezko esanahia abondantziari lotzean, Astarloaren bidetik dabil Chaho: *Les articulations sifflantes expriment richesse, abondance, valeur qui est parfaitement harmonique avec leur prononciation grasse et sustancielle*. (Chaho 1836:16.)²³.

3.2. Eratorbidea

Abbadiek eta Chahok *terminative* hitza erabiltzen dute atzizkien eta bereziki erator atzizkien izendatzeko. Ez da dudarik parte *terminatibo*en kontzeptua frango iluna dela orduan, bereziki erator atzizkiek dituzten baldintza sintaktikoak ez direlaket kontuan hartzen. Gogoan edukitzekoa da ordu arte euskal gramatikek guti erauntsi zutela gai horretaz. Laramendik, adibidez, ez dio deus ere bere gramatikan, nahiz, dakigun bezala, hiztegiari

19. Garai hartako lanen berri ez dakiena harrituko da beharbada, Abbadie silabaren barneko osagaiak azterkatzean letrak aipatzen dituela, Astarloak egiten zuen bezala, eta ez letra horiei dagozkien soinuak. Ez uste izan, bizkitartean, horrela eginez biziki gibelatua agertzen zaigula Abbadie. Izan ere, Europako hizkuntzalarien artean ere franko berandu egin zen letren eta soinuaren arteko bereizketa modu argian. B. Malmergek (1991:292) dioenez, R. Rask (1787-1832) izan zen lehenbizikoa soinua eta letra garbiki elkarretarik bereizi zituen.

20. Honela dio Humboldt: *La gran simplicidad de muchas palabras primitivas, que agotan casi sistemáticamente todos los sonidos radicales en sus uniones más simples* (1817, [1933:45]). Euskal tradizioan ideiaren jatorria Astarloaren lanetan aurki daiteke. Hontzat hizkuntza perfektuetan lehen hitzak (onomatopeikoak ez direnean behintzat) *necesariamente se han de componer de quantas menos letras y silabas sea posible para que sean economas* (Astarloa 1803:67). Astarloa bera Court de Gébelinen lanetan oinarritu zatekeen puntu horretan (ik. 24. oh.).

21. Ez da dudarik Abbadie Darrigoli jarraiki zitzaizkion puntu honetan ere. Honek ere euskarak anitz hitz monosilabiko badituela agerian eman zuen, eta Abbadiek ematen dituen adibideak ere harenaganik hartuak dira.

22. Segurenez ere *Apologia de la lengua bascongada* (1803) liburuaren bidez izan zuen Chahok Astarloaren berri. Ez dut ulertzen haatik nola Abbadiek ez duen aipatzen liburu hori bere bibliografian (ik. 3. oh.); (Astarloaren izena bai, aipatzen du, Humboldt deklinabidearen azalpena hari hartu ziola errateko (1836:36)). Arnaud-Michelek, dudarik batere gabe, ezagutzen zuen Astarloa, erran bezala haren omenez olerki bat ere idatzi baitzuen. Beharbada Astarloaren gehiegikeriak ez zitzaizkion onargarri Antoineri eta nahiago izan zuen haren liburua aipatu gabe utzi? Bizkitartean ez da erraz horren sinestea ere.

23. Erka bedi Chahoren aipu hori Astarloaren erran honekin: *la letra tz, que como letra doble es característica de abundancia*. (Astarloa 1803:70).

eratorbidearen ahalaz baliatuko zen. Harrietek (1741:468-77) erator atzizkiak zerrendatzen ditu, baina azalpen gramatikalik gabe, eta halaxe egiten du Lécusek ere.

Darrigolen lanean (1827:21) aurkitzen dira euskararen eratorbideaz egin lehen gogoeta teorikoak, parte handi batean, Court de Gébelinen ideia zenbaitetan oinarrituak. Honen ildotik ariko da Abbadie ere²⁴.

Bi puntu bereziki azpimarratzeko dira eratorbidea dela-eta. Alabaina Abbadiek aurreko lanetan agertzen diren nahasketa batzuk argitu nahi baititu.

Lehena Harriet eta Lécuseri eginikako kritika batean aurkitzen da. Gramatikari horiek eratorbideko hitz zerrendetan sartuak zituzten *-zko(a)*, *-tekotan* edo *-ekilako(a)* bezalako atzizkiak (Lécuse 1826:35,38,39). Ordean, Abbadiek dio deklinabideari dagozkion morfema adnominalizatzaileak direla horiek (*déclinaison surcomposée*), eta eratorbideko morfemetarik bereizteko direla²⁵:

Il est une autre classe de fausses terminatives données par Harriet et reproduites par M. Lécuse, qui a ici aveuglément suivi les errements du notaire labourdin. Nous voulons parler des combinaisons de terminatives et des formes de déclinaison surcomposée. A ces dernières se rattachent les finales ekilakoa, tekotan, etc. En effet, la première se décompose par exemple, dans le mot onekilakoa en on-ekila-ko-a, bons-avec-de-le-ou-celui, c'est-à-dire celui qui est avec les bons. (Abbadie 1836:10)

Halaber Abbadiek indar berezi bat egiten du eratorbidea eta elkarketa elkarretarik bereizteko. Horrela *janaldi*, *salbide*, *hazgale*, *egosbera*, *zamaldun*, etab. bezalako hitzez erraten du ez direla eratorketaz moldatuak, baizik ere elkarketaz, morfema bakoitza hitz gisa bakarrik erabil baitaiteke:

Il a paru plus conforme à la définition de ne présenter comme affixes terminatives que les désinences qui ne peuvent exister seules, c'est-à-dire qui, dans leur isolement, n'offrent une idée que par abstraction et qui ne sont jamais, à cet état de nudité, employées dans le cours du langage. (...) des mots pareils [guk aitzineko lerroaldian aipatuak] rentrent entièrement parmi ces noms composés, dont les langues grecques et allemandes nous offrent tant d'exemples. (Abbadie 1836:9-10)

24. Ideien nondik norakoaren segitzeko uste dut komeni den gogoratzea puntu honetaz Darrigolek dakarren Court de Gébelinen aipua: *Il était infiniment plus avantageux de déduire tous les mots possibles d'un petit nombre de racines, que s'il avait fallu imposer des noms différents à chaque objet, à chaque action, à chaque état. Ce sont là proprement les trésors du langage philosophique, du sentiment et du goût, ceux de la nature, qui, avec le plus petit nombre d'éléments possible, opère les plus vastes et les plus variés.* (Darrigol 1827:21). Eskema hori da, hain zuzen, Abbadiek proposatzen duena euskararen eratorbidea aurkezterakoan. Gero ikusiko dugunaz (cf. §4), hizkuntza bilakalerari darraion interpretazioa ere egiten du horretaz.

25. Sintagma genitiboetarik sortzen diren nominalizazioak buruhausgarri gertatu dira luzaz euskal gramatikalarientzat. Forma batzuk eratorbidean sartzen baziren zenbait kasutan, beste batzuetan deklinabideko paradigmetan sartzen ziren (berdeklinaketa). Abbadie zuhurkiago ari zen puntu horretan eta, adibidez, ez zuen paratu, irakurle arrotzen lilluragarri (eta euskaldunen lotsagarri), Harrietek, Iharcen de Bidassouetek, eta Chahok, izenlagunen nominalizazio errepikatuen bidez sorturikako adibide bitxirik (itzulpenak ere aipuzkoak dira):

Harriet: *aitarenarenarenganicacoarenarena* (1741:449) 'celui de celui de celui de celui de celui du père'

Iharce: *aitarenarenarenganicacoarenarenarenarequin* (1825) 'avec celui de celui de celui de celui de celui du père',

Chaho: *ghizon-karitu- cheghi-ñitho-aren-aren-arekilakoñiaren-areki* (1836: 46. o.) 'avec celui de l'infiniment petit, qui est avec celui de la très chère petite, qui est devenue aimant tant soit peu trop les hommes'

Ohargarri da, halere, Abbadiek ez dituela aipatzen *euskal herri, eliza gizon* edo *errege bide* bezalako elkarketa arruntak. Ez aipatze horrek, salbuespenak salbuespen, luzaz irau-nen du euskal gramatiketan²⁶ eta, konparazione, berdin kausituko da oraino mendearen hon-darrean lthurryren gramatikan.

3.3. Deklinabidea

Deklinabidean euskarak singularren eta pluralaren ondoan mugagabea ere baduela kontuan hartzen du Abbadiek. Horretan Lécluseren bidetik urruntzen da, eta Oihenartek, Astarloak eta Darrigolek egin bereizketari jarraitzen zaio. Are gehiago Lécluseren gramatika aipatzean, kritikatzten du, mugagabea gogoan ez baitu izan.

Euskararen kasu paradigmari dagokionaz (ik. eranskina), hiru jokabide bereiz daiteke aurreko lanetan:

– itxuraz bederen, latinari jarraitzen zaizkionak kasuen zerrenda eratzerakoan²⁷: Oihenart²⁸ (1638), Micoleta (1653 [1880]), Urte (1712 [1896-1900]), Larramendi (1729).

– Astarloaren jokabidea onartzen dutenak kasu gramatikalak eta adberbialak bereiziz: Astarloa²⁹ (1803), Humboldt³⁰ (1817), Lécluse (1826).

– kasuak morfologiaren arabera bereziki zerrendatzen dituztenak: Harriet (1741), Darrigol (1827), Chaho (1836).

Kasuen zerrendaz gauza guti dio Abbadiek, eta Darrigolen azterketa onartzen du: *Il est le premier qui ait bien développé la déclinaison dans ses trois formes* (Abbadie 1836:37). Ez du iduri Astarloaren bereizketa sintaktikoa onesten duten Darrigolek eta Abbadiek, eta morfo-

26. Cardaberaz (1761) salbuespena da horretan ere, zeren gai hori oso argiki aipatu baitzuen, iduriz Larramendik egin zizkion ohar batzuk jasorik, eta euskararen bereizitasuna azpimarratuz: *Substantivo berequico Icenac eransi, ta elquarrequin batean esatea, Eusqueraren privilegioa da, orañurrean A. Larramendic esancidan bezala. Ta ala: Zalbide edo Zalbidea, gurdibidea, oñ bidea esaten da: ta orobat: Christaubide, Cristau fede, Christau legue, Cristau dotrina, ta Cristau bicitza.* (1761:38)

27. Egiakzi latinaren sailkapena ez zen errespetatua. Oihenartez kanpo, joera nabaria da ablatiboaren pean sarrarazteko beste deiturretan sartzen ez diren kasuak: Micoletak inesiboa eta bizkaitar sozati-boa biltzen zituen ablati-boaren pean, eta destinatiboa datiboarekin batean agerrarazten zuen; Larramendik ablatiboaren barnean eman zituen sozati-boa, motibatiboa, inesiboa eta a(k)gabe; bestalde, Micoletak bezala, destinatiboa datiboarekin bildu zuen. Urtek ablatiboan sarrarazi zituen bestela bil ez zitzakeen kasu guztiak: instrumentala, ablatiboa, inesiboa, prolatiboa, inesibo leku-denborazkoa). Beraz, horien jokabidea, ondorioetan, ez zen Harrietenetik biziki urruntzen.

28. Oihenartek, adibidez, euskararen ergatibitatea kontuan hartu zuen akusatiboa eta bokatiborik ez zela esanez, eta nominatibo aktiboa seinaltatuz. (ik. Oyarçabal 1993). Bakarra izan zen. Micoletak ergatiboa ez zuen zerrendetan batere sartu, eta Larramendik, berriz, nominatiboaren barnean. Berdin egin zuen Urtek, partitiboa ere sartuz, bai nomi-natiboan, eta bai akusatiboan.

29. Astarloak ukatzen du kasurik badela euskarari. Halere praktikan kasu-markei dagozkien bi erlazio mota bereizten ditu: lehenik, lehen mailako erlazioak, kasu gramatikalei dagozkienak eta Humboltek bere kasu zerrendan sarrarazten dituenak, eta, bigarrenik, bigarren mailako erlazioak, kasu adberbialei dagozkienak, eta Humboltek post-posiziotzat jotzen dituenak. Beraz, kontsidera daiteke Astarloak eta Humboltek morfologiaren gainetik ematen dituzte-la atzizkien bidez adierazten diren erlazio motak, gaur egungo ikuspegian erlazio gramatikalei dagozkienak. Gogoratu behar da, latinaren sistemari jarraituz, eta beraz beste modu batean, Oihenartek ere gisa bereko azterbidea proposatu zuela posposizio bereizgaitzak (*inseparabiles*) aipatuz leku deklinabideko kasuentzat (3).

30. Humboltek Oihenarten azterketa eta Astarloarena ontzat ematen ditu oro har: harentzat kasuak kasu grama-tikaletara mugatu behar dira, eta beraz Oihenarten ablatiboa ez du sartzen.

logiako emaitzei jarraikiz kasu guztiak paradigma berean sarrarazi nahiago dituzte, Beauzéeren (1767) bidetik (eta gaur egun ere gehienetan egiten den bezala).

Beauzéek kritikatu baitzuen ketxua mintzairako kasu paradigma latinararen arabera aurkeztu izan zuten gramatikalarien jokabidea, Darrigolek haren erranak gogorazi zituen³¹, eta euskarari aplikatu:

Nous pensons, comme M. Beauzée, que nos grammairiens s'énoncent fort mal sur la déclinaison basque. Ils n'ont reconnu six cas dans la déclinaison latine; ils ne les ont qualifiés nominatif, génitif, datif, &c., que parce qu'ils sont ainsi qualifiés chez les Latins. Or il est temps de mettre fin à cette routine fausse, en déterminant le vrai nombre de cas, et en leur consacrant des noms plus assortis. (Darrigol 1827:68)

Abbadiek ere jokabide bertsua izan zuen euskarari ketxuarekin (eta laponierarekin) dituen antzekotasun gramatikalak azpimarratzean:

La langue quichua, parlée les aborigènes du Pérou, est l'une de celles qui ressemblent le plus à la nôtre. Elle a huit cas suivant les grammairiens, et doit en posséder davantage, puisque les prépositions s'y changent en postpositions. (Abbadie 1826:24)

Erran behar da Astarloaren eta Darrigolen ondotik gogoeta guti eginen dutela euskal gramatikalariek kasu sistemaz, morfologia flexiboaren azterketa osoki aditz jokabideak bere-tuko baitu.

3.4. Aditz bakarraren kontua

Aditza izanen da 19. mendeko euskalariek gehienik jorratu duten alorra. Euskal aditz jokaduraren azalpena Larramendi aski xeheki ematen hasia bazen, ez da dudarik –Humboldték berak ere hala adierazi zuen–, egituraren azterketa borobilena Astarloak egin zuela, nahiz *Discursos primitivos sobre la lengua primitiva* liburua³², alde horretarik bereziki aipatzekoa, anitzez geroago, 1883an, publikatuko zen³³.

31. Beauzéek (1767) esplizituki aipatu zuen euskararen eta ketxuaren kasu sistema, eta Darrigolek (1827:66-67) haren erranak gogorarazi zituen: *J'ai déjà remarqué qu'il n'y a point de mots dans la langue basque ni dans celle du Pérou [ketxua], que l'on puisse appeler prépositions; ce sont des particules enclitiques, qui se mettent à la fin des mots qui énoncent les compléments des rapports: ces langues ont donc autant de cas qu'elles ont admis d'enclitiques pour désigner des rapports généraux; et tous ces cas ainsi formés sont autant de cas adverbiaux, comme le génitif et le datif des Latins. Il est vrai que les grammairiens que j'ai lus sur ces langues, n'ont pas manqué d'en calquer la grammaire sur celle des Latins, et d'en réduire les cas à six: mais les cas qu'ils assignent sont formés comme je viens de le dire; et, en particulier ensuite des postpositions (car c'est ainsi qu'ils nomment les enclitiques qui répondent à nos prépositions), ils ne manquent pas de remarquer le même mécanisme. Ils doivent donc, ou ne reconnaître aucun cas, ou en admettre autant qu'il y a d'enclitiques servant de prépositions dans ces langues.*

32. Astarloaren *Plan de langues* delakoaren bilduma ere izan zuen Humboldték; horretaz ikus Gómez (1996).

33. Abbadiek ez bide zuen Astarloaren azterketa horien berririk izan, bestela segurenaz ere euskal aditzaren morfologiaz zerbait gehiago erranen baitzuen. Gai horretaz ariko da geroago Inchauspere *Le verbe basque* argitaratu denean, lan hori goraiatuz. *Cet ouvrage contient le développement complet du verbe basque, insaisissable jusqu'ici, et si varié qu'en se bornant à l'indicatif présent de la voix transitive on trouve plus de trois mille deux cent quatre vingt modifications toutes différentes les unes des autres. Le verbe entier en offre dix sept mille huit cent vingt. L'usage de ces formes si compliquées exige plus de mémoire que d'intelligence; mais le paysan basque manie cette prodigieuse conjugaison avec autant de facilité que le sauvage de l'Amérique sait employer les flexions de sa langue, si riches et si compliquées.* (Abbadie 1859 [1997:433-436])

Dena den, Chahok, zubererazko formen araberako paradigmak paratuz, bere gramatikako parterik handiena aditz paradigmek eskainiko dien arren, Abbadiek ez dio paradigmaren aberastasunari kasu handirik egiten. Ez, Abbadiek beste puntu bat bereziki azpimarratzen du: hots, euskararen aditz bat baizik ez dela.

Izan ere, Abbadien ustez, aditz jokatu guzien azpian izan aurkitzen da, eta horretan ikusten du euskararen ezaugarri nagusia:

Peu d'entre eux [filologoaren artean] avaient vu que ce qu'ils appelaient verbes n'était que des noms³⁴ employés sous diverses formes d'inflexions; que leur auxiliaire Dut n'est qu'un cas particulier de la forme conjuguée Niz, nintzan, et que tout se réduit, en dernière analyse, à des noms iz, izan, izaitte, qui servent exprimer, sous différentes formes, la seule idée verbale proprement dite, l'expression de convenance entre un nom et son attribut, le verbe être. Plusieurs philosophes, quoique raisonnant d'après les langues où l'idée d'existence est syncopée et confondue avec des modifications actives ou passives, étaient cependant arrivés, par abstraction, à ne reconnaître qu'un verbe. Cette assertion, pleine de sens, se trouve réalisée dans la langue Eskuara. (Abbadie 1836:2)

Ideia hau Chahok bere gramatikan xeheki garatzen baitu, badirudi honenganik hartu zuela Abbadiek. Egia erran, ez da ikusmolde hau guziz arradoa orduko giroan. Adibidez, hizkuntzalaritza historikoan hain garrantzi handia izan zuen F. Boppen ideia nagusietarik bat zen hizkuntza indoeuroparren aditz flexioan izan aditza beti bazela (e)s erroari lotua³⁵.

Euskal tradizioan ere ideia ez da guziz berria: Lécuse³⁶, eta Darrigol³⁷ jadanik gisa batez edo bestez ideia horretara hurbildu ziren, baina Abbadiek eta bereziki Chahok eman zioten mamia. Handik mende erdi batera Stempf (1890) ere bide beretik ariko da, eta hartarik jalgiko da euskal aditzaren pasibitatearen teoria euskal gramatikagintzan, (Oyharçabal 1991)³⁸.

Kontua da nola aurkezten den euskal jokabidea. Bi puntu bereizteko dira: alde batetik jokabide trinkoaren eta jokabide perifrastikoaren arteko bereizketa; eta bestetik aditz laguntzaileen azterketa.

Lehen puntuari buruz, derragun lehenbiziko autoreek jokabide trinkoaren eta perifrastikoaren arteko bereizketa egiten badute, tradizio hori 19. mendearen lehen partean hausten

34. Chahoren ikusmoldeari darraio hemen Abbadie, euskal hitzen oinarrian (aditz gisa erabiltzen direnengan ere) izenak direla onartzen baitu; ik. 14. oharra.

35. Abbadiek berak oharrazten du euskararen azterketan aurkitzen dituela Boppek aditz grekoen ikertzeko aitzinatu zenbait ideia (1836:17). Honela dio Malmergek: *Le but que Bopp s'était posé dès sa première étude sur la conjugaison était de découvrir l'origine de la flexion, tâche qui, avec ses ressources, était condamnée à l'échec. Une seule idée dominait sa pensée. Toute forme verbale contenait l'idée d'être.* (B. Malmerg 1991:294).

36. Lécusek bi aditz laguntzaile bereizten zituen *naiz* eta *dut* (Lécuse 1826:50), baina forma hauei dagokien infinitiboa molde bakarrekoa izanik (izaitea, *être ou avoir; verbe auxiliaire*), iduri luke oinarrian aditz bera dela, bi eratan erabilia. Funtsean azterketa bera izanen dugu Chahoren eta geroago Inchausperen azterketetan.

37. Darrigolentzat bi aditz zituen euskarak: *niz* eta *dut*. *Il ne résulte pas seulement de ces observations, que les formules niz, dut, sont les deux verbes primitifs de notre langue; que l'on doit en recueillir de plus que la nature du verbe ne se rencontre absolument que là où se trouve fondue en quelque sorte l'une desdites formules: ce qui nous conduit à cette dernière conséquence, que la langue basque n'a, à proprement parler, que deux verbes.* (Darrigol 1827:109).

38. Azkuek ere ideia hori partez beretu zuen *Euskal-Izkindean*, baina ez adizkera trinkoetaraino hedatu (1891:159); horretaz ik. Laka (1986).

duela Darrigolek. Haren ustez, alabaina, jokabide trinkoa jokabide perifrastikoaren aldaera baizik ez da. Hitz batean jokabide trinkoa gaur egun aginterako forma laburtuak (*harrozu*, *bilzik*, etab.) azterkatzen diren moduan aurkezten du, *nago* forma [*niz* + *egon*] elkarketaren ondorio gisa aurkeztuz³⁹.

Bigarren puntuari dagokionaz, Oihenartek (1638) lau aditz laguntzaile bereizi zituen, gaur egun egiten den moduan, eta Humboldt (1817) oro-har jarraiki zitzaion horretan⁴⁰. Ordean, beste autoreek ez zuten ildo hori segitu. Lehenik, Larramendirekin berarekin, bazterturik egon zen **edin* eta **ezan* aditz laguntzaileen berezitasun lexikala, tempus eta moduen arabera ikusmolde funtzional baten fagoetan⁴¹; bigarrenetik, *izan* eta **edun*-enzat ere, piskanaka, gero eta garrantzi handiago eman zitzaion azterketa funtzionalari, erran nahi baitu, aditz laguntzaile bakar batek zeuzkan bozen arabera aldaera gisa hartzen zirela aditz paradigmak. Nola, bestalde, euskalki gehienetan, bi aditz laguntzaileek (*izan* eta **edun*) jokatu gabeko forma bakarra baitzuten (*izan* edo *izaitea*), iduri zuen oinarri lexikala bakarra zutela, eta horrek azterketa funtzionalari indarra ematen zion. Oso argia da puntu hori Lécluseren gramatikan. Alde batetik erraten du NAIZ eta DUT direla euskal jokabidearen oinarriak (bi aditz laguntzaile direla aditzera emanez), baina haren aurkezpen orokorrean «*IZAITEA être ou avoir; verbe auxiliaire*» tituluaren pean agertzen dira bi paradigmak elkarren ondoan (Lécluse 1826:50), modu horretan aditz laguntzailearen aldaerak aditz berari dagozkiola adieraziz⁴². Hain zuzen, Abbadie eta Chahoren azterketak kontraesan hori gaindituko du, aditz laguntzaile bakarra dela (*izan*) onartuz⁴³.

Aurreko bi puntuak gurutzatzen badira, ikus daiteke ikusmolde bat izan daitekeela, non alde batetik jokabide bakarra baita (jokabide trinkoaren figura ezeztatuz), eta bestetik aditz laguntzaile bakarra ere baita. Hori da, hain zuzen, Abbadiek eta Chahok egiten dutena, ondorioz euskaraz aditz bat baizik ez dela baitote biek. Ideia hori berriz hartuko zuten mendearen erdialdeko gramatikariek ere, hala nola Inchauspek (1858), honek euskal aditzari

39. Darrigolek dio: *nago résulte de la combinaison de naiz avec egon: naiz avec ibil donne nabila; naiz avec etor fait nator. C'est la même subordination et la même communauté entre dut et ses subalternes: car qui ne voit dut erabil dans dabilat, dut eraman dans daramat, dut eraunts dans derauntsat, etc.* (Darrigol 1827:109). Erran bezala, Abbadiek eta Chahok, bai eta Inchauspek, Bonapartek eta Gèzek ere segituko zuten azterbide hori.

40. Humboldt (1817) aipatzen dituen laguntzaileak hauek dira: *eduki, ukan, adi, egin, eroan, izan* (Humboldt 1817 [1933:54]). Aditz laguntzaileari dagokionaz bederen, osoki nagusituko zen aditz bakarraren teoria, Van Eysek (1867, 1879) bere kritikak egin arte.

41. Horrekin erran nahi da autoreek ez dutela aditz laguntzaileen erroa kontuan hartzen. Adibidez, Larramendiren paradigmatan tempus-moduak agertzen dira irizpide gisa (komuntaduraz kanpo). Kontuak franko nahasiak ziren aurkezpen horretan zeren tempus-moduen arabera saikapena gaztelaniaren gramatikari jarraikiz egiten baitzituen Larramendik. Kritika bera eginen zion Van Eysek Zavalari (1848), cf. Sarasola (1992).

42. Darrigolekin arazo hori ez da agertzen zeren NIZ eta DUT laguntzaileak bereizten baditu, adizkera horiei dagozkien forma jokatu gabek ez baititu euskaraz adierazten, frantsesez baizik: *De là nos verbes sont deux. Le premier répond avec avantage au verbe substantif être, connu dans toutes les langues; et s'emploie dans tous les cas où il s'agit d'affirmer en quelque manière la substance du sujet. Le second est une sorte de verbe avoir, affirmatif de l'action la plus générale possible d'un sujet sur un autre* (Darrigol 1827:109). Ohargarria da, halere, aditz laguntzaile iragankorra aipatzean nola dioen Darrigolek *sorte de verbe avoir*. Kontuan har bedi Darrigolen obran aipu hau M. de Bonald frantses filosofoaren erran baten ondotik heldu dela, hartan hain zuzen *avoir* eta *être* kontzeptuen harremanak azpimarratzen baitira: *L'avoir est une manière de l'être, et la plus générale possible (...) Être et avoir, fondement de toutes les langues, qui sont l'expression des êtres*.

43. Paradoxikoa da gisa batez urrats hori eginen duten lehen gramatikariek beren lana gehienik zubereraren gainean finkatu izana, zeren, dakigun bezala, euskalki horretan garbiki agertzen da forma jokatu gabekoa *izan* eta **edun*-en arteko oposaketa, azken honek *ükhen* forma duelarik.

buruzko bere liburu gotorra honela hasiko baitzuen: *La langue basque n'a qu'un verbe. Ce verbe a deux voies: la voie transitive et la voie intransitive.* (Inchauspe 1858:1).

Ikus dezakegunaz, Abbadie eta Chahok bultzatu zuten aditz bakarraren teoria honen sorreran arrazoi desberdinak kausitzen dira. Alde batetik euskararen barneko elementuak ditugu, aipatu ditugunak, eta euskal aditzaren jokabidea ikuspegi funtzional baten arabera azterkatzea zeramatenak⁴⁴. Bestalde arrazoi filosofikoak edota ideologikoak ere suma daitezke. Onarturik tradizio filosofikoan ongi finkatua zen *izan* aditzaren oinarritzotasuna, euskalariet gustatzen zaie pentsatzea, mintzaira zaharra izanik, euskarak ezaugarri hori atxiki duela.

4. KONPARATIBISMOA ETA HIZKUNTZA ALDAKETEI BURUZKO IDEOLOGIA

Euskararen ezaugarriak bildurik, konparaketaz ariko da Abbadie, puntu horretan ere berrikuntza nabarmenak ekarritz.

Gauzak larri-larria erranik, konparatismoko lanak bi modutakoak dira ordu arteko euskalaritzan. Alde batetik, badugu Larramendik bereziki ezagutarazi zuen ikusmoldea, euskararen erroak Iberia guzian bai eta Italian ere ikusten zituen. Ikusmolde hau, parte handi batean, euskalaritzako mundutik kanpo, Hervasek beretu zuen (ik. Brevia 1991). Argi eta garbi harreman genetikoak dira hor bilatzen direnak, etimologiaren bidez bereziki. Bestalde, bazen Astarloaren ikuspegia, gisa batez konparatibismo tipologikoari ateak zabaltu zizkiona, eta hizkuntzaren ezaugarriak konparatzen zituen xerkatu gabe haien artean erlazio genetikorik edo bestelakorik. Astarloak halere, konparaketa guzia hizkuntzen perfektasunaren ikuspegi bideratzen baitzuen, ez zituen antzekotasun tipologikoak beren hartan kontuan hartzen.

Horretan ageriko da hain zuzen Abbadieren ekarpena. Hiru ideia nagusi kausitzen dira Abbadieren gramatikan:

– hizkuntzen artean tipo batzuk baitira, euskara tipologia horretan sartzen da, hizkuntza polisintetikoa izanik: *L'Eskuara, différent en cela de toutes les langues d'Europe, appartient à la famille des idiomes polysynthétiques, si riche et si variée chez les races primitives d'Amérique.* (Abbadie 1836:2)

– hizkuntza polisintetikoa izanik antzekotasun tipologikoak baditu tipo bereko mintzairetako gramatikekin, horrek ez baitu erran nahi haiekin lotura etimologikorik baduela: *Dans les langues primitives de l'Amérique, au contraire, la constitution de chaque mot a une physionomie étrangère, et pour trouver des rapports avec le basque, il faut se borner à la grammaire. Ici les analogies sont nombreuses.* (Abbadie 1836:23)

– hizkuntza batzuk eta euskarak badituzte analogia etimologikoak (hots, lokarri zutenak): *Ainsi les langues laponne, hongroise, finnoise, latine, hébraïque, arabe et géorgienne, nous ont offert plusieurs racines communes au basque*⁴⁵. (Abbadie 1836:22)

44. Dakigunaz, luzaz eta luzaz iraun du ikusmolde horrek tradizio pedagogikoan. Duela hogeit edo hogeita hamar urte alfabetatzeko klaseetan erabiltzen ziren aditz laguntzaileen taulak azalpen funtzionalari jarraikirik eginak ziren. Noski, badaiteke, irakasteko egokiago ere den azalpen hori.

45. Erranaldi horri ondoko oharra egiten dio Abbadiek: *Ces langues sont rangées suivant l'importance et le nombre de ces rapports avec l'Eskuara, autant du moins qu'on peut en juger à un premier aperçu.* Abbadiek hurbiltasunezko zerrendatze hori ez du justifikatzen.

19. mendeko konparatibismoa ikuspegi historizista batean sartzen zen, eta Abbadiaren gramatikan ere kausitzen dugu ikusmolde hori.

Beha dezagun, bada, zer gisatan aurkezten zuen Abbadiak hizkuntzen bilakaera bere interpretazio historikoan. Laur urrats bereizten zituen hizkuntzen historian:

1. Izen konkretuetarik izen abstraktuetara iragatea, eta atzizki eratorleak eta kasu-emaileak sortzea: *Comme on peut le voir par l'éducation du sourd-muet, tout langage commence par des noms concrets; puis on apprend à généraliser: de là naissent lentement les noms abstraits et qualificatifs, les cas et les terminatives dont on trouve des vestiges dans toutes les langues. Tel est le langage de tant de peuplades nègres; c'est ainsi que des nations peu avancées bégayaient leurs idées.* (Abbadie 1836:25); (letra belztura guk ezarria).

2. Aditzaren sorrera (izan aditza): *Pour arriver au verbe, au lien de la proposition, il a déjà fallu un grand perfectionnement de la nation. (...) Dès qu'on a possédé le verbe être, on l'a combiné avec les noms verbaux pour exprimer les noms d'action. Cette marche est naturelle, positive, et a dû se présenter d'abord dans l'enfance de la société.* (Abbadie 1836:25); (letra belztura guk ezarria).

3. Aditz jokabide sintetikoaren erabiltzea: *Le troisième état des langues se voit dans des formes syncopées où le nom verbal s'intercale dans le verbe dédoublé. Le basque commence à nous en offrir des exemples; mais le mot ainsi condensé conserve encore toutes les inflexions pour les rapports complexes de sujets à régime.* (Abbadie 1836:26); (letra belztuak guk ezarriak).

4. Sistema analitikoa nagusitzea perpausean, aditz jokadura sinpletzen delarik, eta deklinabidea desagertzen delarik: *De là, pour passer aux formes des langues analytiques, la transition est facile à saisir. (...) Peu à peu, en exprimant toujours le nom d'une façon indépendante, on s'est affranchi d'une inflexion verbale trop spéciale dans son individualité, et dont l'utilité ne se faisait plus sentir impérieusement à côté du nom. La déclinaison s'est divisée en même temps. Les cas sont devenus d'abord préfixes, ensuite prépositions séparées. Enfin l'article détaché vient reproduire une partie de la précision qu'on avait perdue, en déviant de la règle primitive.* (Abbadie 1836:26); (letra belztura guk ezarria).

Abbadiak bilakatze hori ondoko hizkuntza hauetan ikusten du, halako bilakaera progresiboa seinalatuz batetik bestera iragatean: arraza beltzeko populuen mintzairak → euskara → latina → frantsesa:

Les langues des races noires, le basque, le latin et le français peindront successivement cette transformation dans la manière de rendre la pensée. (Abbadie 1836:26)

Gisa batez aurkez aurk eman daitezke Abbadiak eta Astarloak euskararen ustezko primitibotasunaz zeuzkaten ikuspegiak.

– Astarloak positiboki behatzen dio hizkuntza primitibotasunari, goraipatzen baititu hartan kausitzen direlako garbitasuna (nahasketarik eza), erregularitasuna eta trinkotasuna. Hizkuntzen aldaketa, aldiz, ez du hala ikusten, nahasketak eta irregularitasuna baita-kartza.

– Abbadiak, aitzitik, aurreramenduaren arabera behatzen dio hizkuntza aldaketari nahasketak, maileguak eta irregularitasunak hizkuntzen indarraren seinale izanik; hizkun-

tza primitibotasunak orduan, inplizituki behintzat, historia modernoan izaten ohi duen konotazio berezia hartzen du⁴⁶.

Abbadieren eta Schleicherren hizkuntzei buruzko kontzepzioak desberdinak izanik ere⁴⁷, begien bistakoa da haien ikusmoldeek elkarren antza badutela. Schleicherrek geroago erranen duen bezala, Abbadiek ere pentsatzen du hizkuntza tipo batzuek besteak garaitzen dituztela, eta desagerrarazten. Ordean, lehenbizikoak gertaera naturala ikusiko du horretan, besteak, berriz, gertaera historikoa: *Les nations les plus complexes par leur origine, les langues les plus hétérogènes par leurs emprunts semblent être appelées à guider l'avenir de l'humanité.* (Abbadie 1836:27)

46. Abbadiek ez du euskara deusetan gutiesten, eta alderantziz haren abantailak goraipatzen ditu. Ordean, hizkuntzen bilakaeraz duen ikusmoldean, euskara nahitaez behereko mailan gelditzen da ikuspegi eboluzionistak hizkuntzen artean agerrarazten duen mailakatzean. Kontraesan horretaz jabetzen da Abbadie eta galdera hauek egiten ditu, ihardespenik eman gabe haatik: *Mais pour développer des principes si simples et si grands* [euskarak dituenak], *n'a-t-il pas fallu une grande supériorité morale ou une grande sécurité dans l'avenir de la vie physique et politique? Les autres langues doivent-elles toutes leurs irrégularités de syntaxe et de grammaire aux mélanges opérés par des invasions? ou se seraient-elles pliées à ravir aux autres idiomes ce qu'ils avaient de saillant dans leur caractères, s'enrichissant ainsi de ces dépouilles par un instinct de domination?* (Abbadie 1836:27)

47. Schleicherrentzat hizkuntzak berezko *organismoak* dira, sortzen, hazten, bizitzen eta hiltzen direnak. Ikusmolde hau bereziki finkatu zuen Darwinen ideiak hizkuntzei aplikatuz 1863an argitaratu zuen lan batean (*Die darwinsche theorie und die sprachwissenschaft*); ik. Vinson (1876:9), Malmberg (1991:302). Erran gabe doa, Abbadie gazteak, hizkuntzak bilakaera eboluzionista batean emanik ere, ez zezakeela horrelako ikuspegia izan.

BIBLIOGRAFIA

- ABBADIE, A.: 1836. 'Prolégomènes', in A. TH. d'Abbadie & J. Augustin Chaho, *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne*, Paris, 1-50.
- ABBADIE, A.: (1997) *Recueil de textes ethnographiques, géodésiques, linguistiques, littéraires*, P. Urkizuk prestatu argitalpena, Donostia-Bilbo.
- ALBERDI, J.: 1989. 'Ohar batzuk euskal deklinabidearen historiografiarako', ASJU-XXII-2, 411-434.
- AÑIBARRO, P. A. de: 1820/ 1969. *Gramatica bascongada*, L. Villasanteren argitalpena, in ASJU, 3, 3-170.
- ASTARLOA, P. P. de: 1803. *Apologia de la lengua bascongada*, Madrid; facsimileko argitalpena, urterik eta argitaratzailerik gabea.
- ASTARLOA: 1883. *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*, Bilbo.
- AUROUX, S. (arg.): 1992. 'Les parties du discours et leurs critères' in S. Auroux (arg.), *Histoire des Idées linguistiques*; 2. lib. *Le développement de la grammaire occidentale*, 1992, Mardaga, Liège.
- AZKUE, R.M.: 1891. *Euskal Izkindea*, Bilbo.
- BEAUZÉE, N.: 1767. *Grammaire générale ou exposition raisonnée des éléments nécessaires du langage pour servir de fondement à l'étude de toutes les langues*, Paris.
- BONAPARTE, L-L.: 1869. *Le verbe basque en tableaux*, Londres.
- BREVA, M.: 1991. 'Las ideas lingüísticas del siglo VIII en Lorenzo Hervás: la descripción de las lenguas del mundo', ASJU XXV-3, 769-781.
- CARDABERAZ: 1761. *Euskeraren berri onac*, Iruñean.
- CHAHO, A.: 1836. 'Grammaire euskarienne', in A. TH. d'Abbadie & J. Augustin Chaho, *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne*, Paris, 51-184.
- COURT DE GÉBELIN, A: 1774. *Monde primitif*, 2. lib. *Grammaire universelle et comparative*, Paris.
- DARRIGOL, J.-P.: 1827. *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*, Bayonne; facsimileko argitalpena, 1979, Eche, Toulouse.
- DOMINICY, M.: 1992. 'Le programme scientifique de la grammaire générale', in S. Auroux (arg.), *Histoire des idées linguistiques*; 2. lib. *Le développement de la grammaire occidentale*, Mardaga, Liège. 424-441.
- GARATE, J. 1935.: 'Extracto del *Plan de lenguas* de Astarloa por Guillermo de Humboldt', RIEV 26, 94-121.
- GOMEZ, R.: 1989. 'Bonaparte Printzearen inguruko hizkuntz eztabaidak', ASJU, III-2, 355-392.
- GOMEZ, R.: 1996. 'La aportación de W. von Humboldt a la gramática vasca', RIEV, 41-2, 607-622.
- HARRIET, M: 1741. *Gramatica escuaraz eta francedez composatua frances hitzcuntça ikhasi nahi dutenen faboretan*, Baiona.
- HUMBOLDT, W. von: 1817. *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweyten Bandes des Mithridates über die Cantabrishe oder Baskische Sprache*, Berlin; J. Garateren gaztelaniazko itzulpena, *Correcciones y Adiciones al Mithridates de Adelung sobre la Lengua Cantábrica o Vasca*, 1933, Donostia.

IHARCE DE BIDASSOUE, Abbé d': 1825. *Histoire des Cantabres*, Paris.

INCHAUPE, Abbé: 1858. *Le verbe basque*, Baiona-Paris.

LAKA, I.: 1986. 'Euskal Izkindeako aditza', ASJU XX-3, 705-754.

LAKARRA, J.A.: 1987-1988. 'Euskalaritzaren historiarako lanabesak', Lehen parte: 'Lécluseren euskal gramatika (1826)', ASJU XXI-3, 813-916; bigarren parte: 'Lécluseren hiztegia', ASJU XXII-1, 99-211.

LARRAMENDI, M. de: 1729. *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*, facsimileko argitalpena, 1979, Horgago, Donostia.

LÉCLUSE, F.: 1826. *Manuel de la langue basque*, Bayonne-Toulouse, facsimileko argitalpena 1987, J.A. Lakarraren eskutik, 'Lécluseren Euskal gramatika (1826). Euskalaritzaren Historiarako Lanabesak (I)', ASJU, XXI-3.

MALMERG, B.: 1991. *Histoire de la linguistique de Sumer à Saussure*, PUF, Paris.

OIHENART, A.: 1636. *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae quam Aquitanicae*, Paris; 1656ko 2. argitalpeneko facsimileko argitalpena, J. Gorosterratzuk egin gaztelaniazko itzulpenarekin, 1992, Gasteiz.

OYHARÇABAL, B.: (1989). 'Les premières grammaires du basque', *Bulletin du Musée basque*, Baiona, 453-472.

OYHARÇABAL, B.: (1991). 'Note sur les antécédents romantiques de la théorie de la passivité du verbe dans les études euskariennes', ASJU XXV-3, 965-975.

OYHARÇABAL, B.: (1992). 'Euskararen mugaz egin lehen mapez (1806-1807)', in *Luis Villasanti ome-naldia*, iker-6, Bilbo, 349-366.

PETIT, C.: 1899. 'Antoine d'Abbadie', in *La tradition au Pays basque* (anitzen artean), 1897/22/15-22 artean Donibane Lohizunen egin biltzarrean aurkezturiko lanen bilduma, 3. argitalpena 1994an, Baionan, 538-560.

ROBINS, R.: 1957. 'Dionysius Thrax and the Western grammatical tradition', *Transactions of the Philosophical Society*, 67-106, Oxford.

SARASOLA, I.: 1989. 'Van Eysen gramatika lanak', ASJU, XX, III-1, 87-94.

STEMPF, V.: 1890. *Besitzt die Baskische Sprache ein transitives, oder nicht ?* Bordele. Autoreak berak eginikako frantsesezko itzulpenarekin argitara emana.

VAN EYS, W.J.: 1867. *Essai de grammaire de la langue basque*, 2. argitalpena, aberastua eta zuzendua, Amsterdam.

VAN EYS, W.J.: 1879. *Grammaire comparée des dialectes basques*, Paris.

ZABALA, J. M. de: 1848. *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*, Donostia.

ERANSKINA

*Eranskina: Kasu*⁴⁸ *paradigma euskal gramatika argitaratuetan (1638-1836)*

Atzikia	OIHENART	LARRAMENDI	HARRIET	ASTARLOA ⁴⁹	HUMBOLT	LÉCLUSE	DARRIGOL	CHAHO
Ø ----->	+ nom.	+ nom./akus./bok.	+	+ paz.	+ nom. pas./akus./bok.	+	+ nom.	+
ik ----->	+ neg.	+ nom. /akus.	+	+ ⁵⁰ paz.	+ nom. pas./akus./bok.	+	-	+
k ----->	+ agent..	+ nom.	+	+ agent.	+ nom. agent..	+	+ aktib.	+
i ----->	+ dat.	+ dat.	+	+ errezip.	+ dat.	+	+ dat.	+
en ----->	+ gen..	+ gen.	+	+ poses.	+ gen.	+	+ gen.	+
tako ----->	-	-	+	-	-	+	+ ⁵¹ dest.	+
zko ----->	-	-	-	+ (mater.)	-	-	-	-
z ----->	+ ablat.	-	+	-	-	+	+ inst.	+
entzat -----> -	+	+ dat.	+	- (final.)	+	+	+	dest.
eki / gaz ----->	-	+ ablat.	+	+ (inst.)	-	+	+	+ unit.
engatik ----->	-	+ ablat.	-	+ (efiz.)	-	-	-	+
tzat / tako ----->	-	-	+	-	-	+	-	+
gabe ----->	-	+ ablat.	-	+ (esklus.)	-	-	-	-
tan / baitan /gan ----->	-	+ ablat.	+	-	-	+	+	+ posit.
tarik / enganik ----->	-	-	+	-	-	+	+ ablat.	+
tara / engana ----->	-	-	+	-	-	+	+ aprox.	+
taraino /ganaino ----->	-	-	+	-	-	+	-	+

48. Kasuen izenak: ablat.: ablatiboa; agent.: agentea; aktib.: aktiboa; akus.: akusatiboa; aprox.: aproximatiboa; bok.: bokatiboa; dat.: datiboa; efiz.: efiziente; errezip.: errezipiente; esklus.: esklusiboa; final.: finala; gen.: genitiboa; inst.: instrumentala; mater.: materiala; neg.: negatiboa; nom.: nominatiboa; nom. agent.: nominatibo agentiboa; nom. pas.: nominatibo pasiboa; pas.: pasiboa; paz.: paziente; pos.: posesiboa; posit.:positiboa; unit.: unitiboa.

49. Astarloak kasu deitura bazterten du (1803:108), eta *lehen mailako erlazioen* adierazteko baliatzen diren atzizkiei (gaur guretzat kasu gramatikalei dagokien kasu markak: Ø, k, i, en) artikuluak deritze. *Bigarren mailako erlazioak* adierazten dituzten atzizkiei (*ezko, entzat, gaz, gaiti(k), бага*), berriz, *posposizioak* erraten die (1803:145); horre-gatik parentesien artean ematen ditugu taulan.

50. Humboldtentzat (eta Astarloarentzat) erran daiteke partitiboa mugagabeko determinatzailea dela eta ez kasua.

51. Darrigolek *tako / ko / etako* atzizkiak agerrarazten ditu *mendi* hitzaren deklinabidean, baina destinatiboa deitzen du eta *pour* itzultzen. Badirudi, beraz, harentzat *-entzat* pareko atzizkia zela bizigabekoekin erabiltzekoa.